

ADISKIDETZE SAKRAMENTUAREN ELKARTEKO OSPAKIZUNA

Kantua: Zatoz, Jauna! (Gora Jainkoa 2, 4. orrialdea).

Batzarburuaren agurra

Jainko Aita gida gaitzala bere Hitzaren argiaz bakerako bidean; bere Seme Jesusek sendo ditzala gure fedea eta itxaropena; eta haien Maitasun Espiritua izan bedi zuekin...

Otoitza

Egin dezagun otoitz.

Jauna, gure ondora esertzera zatoz, gurekin egotera. Ez zatoz denak berdin jarrai dezan, gutako bakoitzarengan gauza asko aldatzeko asmoz baizik. Ireki gure begiak, gure munduan presente zaudela sumatzeko. Askatu gu entzun ezinetik, laguntza eskatzen dutenengan zure ahotsa entzuteko. Eta emaguzu errukitsu zure barkamena eta grazia. Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Lehenengo irakurgaia

Isaias 40, 1-5, 9-11 [Abendualdiko II. Igandea, B urtea]

Erantzun-salmoa

Is 12, 2. 3 eta 4bcd. 5-6 [Liburuxka honetan, 35. orrialdean]

Ebanjelioa

Markos 1, 1-18 [Abendualdiko II. Igandea, B urtea]

Homiliarako argibideak

Itxaropenez betetako bidea da Abendualdia, helmuga Betleem duena, hau da, Eguberrira garamatzana. Gizaki berriaren jaiotzara, solidaritzaren, maitasunaren zibilizazioaren sorkundera. Ezin gara Betleema iritsi, berriro ere bidean jartzen ez bagara, ibiltzea galarazten diguten traba guztiak albora utzi eta gure izate zaharra berritzen ez badugu. Helmugara iritsi nahi duenak arin joan behar du, kargarik gabe. Gehiegi dira zerumuga berrietara abiatzea zailtzen eta oztopatzen diguten gauzak.

Ospakizun honek bultzada bat izan nahi du gizadi berrirantz ari dugun erromesaldian. Andre Mariaren eskutik egin nahi dugu ibilaldia, bera izan zen eta lehenengoa, bidea egin eta helmugara iristen. Bera izango dugu gidari eta bidelagun Betleema daraman bidean. Abendualdirako itxaropena ez da epe laburrerako itxaropen azkar eta erraza. Oraindik ez dugu ikasi itxaroten. Nahi duguna berehala iristen ez badugu geure onetik ateratzen gara. Kristau itxaropena ez da laster iristen dena, ez da erraza, ez da merkea... Bi oinarri ditu, nagusiki, kristau itxaropenak: giza ahultasuna eta Jainkoaren indarra; gure bekatua eta Jainkoaren errukia. Eramanpenak indartzen du itxaropena, baita bizi berria lora dadin egiten dugun ahaleginak ere.

Zein urrats eman behar ditugu? Zein da egin beharreko bidea? Lehenengo pausoak ematen saiatuko gara. Mariak emandako pausoak: berak hitz emandakoan bere uste ona jarri eta Jainkoagan konfiantza izan baitzuen.

Sinetsi: Sinetsi egin behar duzu estreina, hau da, Jainkoagan uste sendoa izan, bere eskuetan erabat jarri, Haren erabakiak onartuz. Jainkoagan bakarrik sinetsi, ez beste sasijainko edo irudikapenetan. Jainkoa Maitasun hutsa dela eta asko maite zaituela egiaz sinetsi...

Maitatua izan: Utzi maita Jainkoak maita zaitzan, zabaldu zure bihotza Jainkoari eta bere maitasunari. Egin behar duzuna, bide askotan ibiltzea baino gehiago zer da: etxeko atea zabaldu Jainko-Adiskidea ate joka hasi orduko...

Garbitu: Utzi Jainkoari zure bihotza garbitzen. Etxea zikina eta utzia dago. Hauts asko dago, amaraun asko, oraindik argia sartu ez deneko toki asko. Ondo zaindutako etxe xume baina garbiak atsegin ditu Jaunak. Prestatu iezaiozu zure bihotzeko etxea...

Askatu: Aska zaitetz. Asko dira eta lotzen zaituzten gauzak. Kontsumoaren legeek lotzen zaituzte. Etxea, bihotza, gauzaz betea daukazu, eta batzuetan ez dago tokirik Jainkoarentzat...

Elkarbanatu: Elkarbanatu. Ez zenuke hainbeste gauza izango eskuzabalago bazina. Oroitu Joan Bataiatzailearen hitzak: "Bi jantzi dituenak elkarbana dezala ez duenarekin; jateko duenak egin beza gauza bera...".

Apaltasuna: Salto egin apaltasunera, zeure buruaz askatuz. Nor bere burua maitatzea ondo dago, baina zeure buruaz bakarrik arduratzea ez... Apaltasunaren bidea da Jainkoagana iristeko bidea...

Hazi: Sendo ezazu zeure baitan Jainkoarekin topo egiteko gogo. Maitatu Jainkoa gauza guztien gaineretik. Behar duzun jatekoa bezala, arnasteko airea bezala, berotzen gaituen sua bezala. Plazeren eta ongizatearen gaineretik maitatu Jainkoa. Gogo hori da itxaropenaren oinarria ...

Otoitz egin: Egizu otoitz. Otoitzak izan behar du gure itxaropena suspertzen duena. Egin otoitz hitzekin, isiluneekin; egin otoitz buruarekin eta bihotzarekin. Otoitzarekin, Mariaren antzera, Jauna zure bihotzera lehenago etortzea bideratuko duzu.

Maitatu: Eta maita ezazu. Maitatu hainbeste maite zaituen Jainkoa; maitatu gaua guztien gaineratik, zure burua baino gehiago, zeure indar guztiz, zeure bihotz osoz. Maitatu ez zeruan bakarrik dagoen Jainkoa, hainbeste pertsonagan, zeure ondoan, inguruan aurki dezakezuna baizik.

Adiskidetzearen ohikunea

Senideok: aitortu zuen bekatuak eta egin otoitz elkarren alde, errukia iritsi ahal dezazuen.

*Guztiek esango dute: **Aitortzen diot...***

Eska diezaiogun Jainko errukitsuari gure bihotzetan ernaraz dezala Ebanjelioaren poza, barkamenaren fruitu bezala poz horren testigu nekaezin izan gaitezen.

R/. Zatoz, Jauna, gu salbatzera!

- Ez zatoz gugana osasuntsuak sendatzera, gaixoak indarberritzera baizik; guk ere erosokeria utzi eta benetan behar duenari eman nahi diogu gure laguntza. R/.
- Ez zatoz daukanari ematera, behartsuak aberastera baizik; guk ere daukaguna behartsuen alde eskaini nahi dugu. R/.
- Ez zatoz haserrea sortzera, bakea ekartzera baizik; guk ere, zure jarraitzaile garenez, bazter guztietan bakea eraiki nahi dugu. R/.
- Ez zatoz inor menderatzera, guztiak barkamenaren igurtziaz berritzera baizik; guk ere ez dugu epaile izan nahi, guztien lagun eta barkamen emaile baizik. R/.

Esan dezagun orain elkarrekin Jesusek erakutsi zigun otoitza; eska diezaiogun Aitari barka ditzala gure bekatuak eta atera gaitzala gaitz guztietatik: **Gure Aita, zeruetan zarena...**

gintuzun, zure aurrean santu izan gintezen eta zure etxean pozik bizi; onar gaitzazu eta gorde zure maitasunean, pozez eta maitasunez bizi gaitzen zure Eliza Santuan. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. R/. Amen.

Banakako aitortza eta barkamena

Apaizengana gerturatuko dira orain bere bekatuak aitortu nahi dituztenak, banaka aitortza egin eta bekatuen barkamena hartzera. Bitartean kantu edota musika egokiak lagun dezake giroa sortzen.

Jainkoaren errukiarengatik eskerrak ematea

Aitortzak bukatuta, batzarburuak beste apaizak ere ondoan dituela, eskerrak emateko eta egintza egokiren bat egiteko deia luzatuko du. Penitentziaren graziaren adierazgarri izango da hori bai norberaren bizitzarako bai elkarteko bizitzarako ere.

Kantua: Bakea ta justizia (Gora Jainkoa 2, 7. orrialdea).

Otoitza

Egin dezagun otoitz.

Isilunea utzi.

Errukian aberatsa eta barkatzen eskuzabala zaren Jesu Kristo gure Jauna, giza haragiaren ahultasuna onartu zenuen, zure apaltasun ereduari jarraiturik zailtasunean gu sendotzeko: egizu zaindu ditzagula beti zugandik hartu ditugun dohainak eta penitentziaren bidez altxa gaitzela bekatuak erorrarazten gaituenean zure amaigabeko errukia goratu ahal izateko. Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan. R/. Amen.

Bukaerako ohikunea

Jauna zuekin.

R/. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitezte, Jainkoaren bedeinkapena hartzeko.

Jaunak zuzen ditzala zuen bihotzak

Jainkoaren errukian eta Kristoren itxaropenean. R/. Amen.

Bizi berri bat goza dezazuela, gauza guztietan

Jainkoarentzat atsegín izateko. R/. Amen.

Eta bedeinka zaitzate! Jainko ahalguztidunak,

Aitak eta Semeak + eta Espiritu Santuak. R/. Amen.

Barkatuak daude zuen bekatuak. Zoazte Jaunaren bakean.

R/. Eskerrak Jainkoari.